


NAFARROA

Nafarroako datuak asko hobetu dira azken urteetan. Esaterako, konpostatze datu oso onak dituzte, landa eremuko herri batzuetan hondakin organikoen bilketa eta konpostatzea %100era iritsi da. Birziklapen datua asko hobetu daiteke eta baita zabortegira eramaten den hondakin kopurua ere. Baina azpimarratzekoena Nafarroak Hondakin Legearen bitartez erraustegia alde batera utzi izana da.



(Iturria: Nafarroako Gobernua)

Nafarroak duen arazo handiena mankomunitate bakoitzak duen bilketa sistema ezberdina da. Badira mankomunitateak organikoa bereizten dutenak, baina beste batzuek beste hondakin batzuekin nahasita biltzen dute eta honek ondorengo tratamenduaren eraginkortasuna gutxitzen du. Bilketa sistema asimetriko honek batzbesteko birziklapen tasa baxua izatea ere eragiten du, nahastuta jasotako hondakinak tratamendu mekaniko biologiko bidez bereiztea ez baita eraginkorra. Gainera zabortegira doazen hondakin guztiak ez dira tratatuta eramaten Europar Batasunak exijitzen duen bezala.

Nafarroak eraginkortasuna erakusten du eremu eta mankomunitate batzuetan, baina beste batzuetan hobekuntza nabarmenak egin beharko dituzte, batez ere bilketa sisteman, birziklapen helburuak betetzeko, eta baita zabortegira zuzentzen den hondakin kopurua murrizteko ere.